

Mobilizazioak egingo dituzte presoan urrunketak bukatzeko

Abuztuaren 7an hondartzetan mobilizazioak deitu ditu Etxeratek; Tolosaldeko herritarren kasuan, Zarautzera joateko gonbidapena egin dute presoan senideek // 6

Uzta Giro festa izango dute Iruran larunbatean

Herrian bildutako uzta erakutsiko dute goizean hasi eta gauera arte; xilografia, ginkana, pilota, bertsoak, bazkaria eta musika izango dira, besteak beste // 2

Txintxarri abesbatzak azken emanaldia eskainiko du

62 urteren ondoren zikloa itxitzat eman dute, eta aurrerantzean kultur elkarte moduan jarraituko dute; larunbatean eskainiko dute azken kontzertua, Alegian // 3

Tolosaldea traineruak Euskotren ligari ekingo dio asteburuan

Arraunaren maila gorenean estreinatuko da eskualdeko ontzia; larunbatean Bilbon izango da estropada, eta igandean Donostian lehiatuko dira // 7



JOSU ARTUTXA

ASTEASU DANTZA-SOKA BEREZIA

San Pedro eguna izan zuten atzokoan Asteasun, Leaburu-Txaraman eta Urkizun; Asteasuren kasuan, dantza-soka berreskuratu zuten herritarrek omendu zituzten; Leaburun haur eta gaztetxoak izan ziren protagonista // 4



zozketak



Atarikideentzat **liburu bat** dugu

Maixa Zugastiren
Atarian
liburua

Zozketetan parte hartzeko **osteguneko** 11:00ak arte **943 65 56 95** edo **www.ataria.eus**

ESKURATU MARIA ALTUNA ILUSTRATZAILEAK DISEINATUTAKO ATARIKO MATERIALA!

Deitu
943 65 56 95
edo
pasa bulegotik!



KATILUA	BOTILA	POLTSA	PACK-A
Atarikideak: 9 euro.	Atarikideak: 9 euro.	Atarikideak: 8 euro.	Atarikideak: 20 euro.
Atarikide ez direnak: 11 euro.	Atarikide ez direnak: 11 euro.	Atarikide ez direnak: 10 euro.	Atarikide ez direnak: 26 euro.

Fagus Alkiza zentro berritua ezagutzeko bisita gidatuak egingo dituzte

Lau bisita gidatu egingo dituzte aurtengo udan, horietako bi euskaraz izango dira, eta azkenekoa, berriz, gaztelaniaz

Erredakzioa Alkiza

Fagus Alkiza interpretazio zentroa eraberritu egin dute eta zentroaren itxura berria ezagutu nahi dutenentzat bisita gidatuak eskainiko dituzte aurtengo udan. Lau bisita izango dira guztira, horietatik hiru euskaraz (uztailaren 8an, uztailaren 29an eta abuztuaren 23an) eta bakarra gaztelaniaz (abuztuaren 26an). Parte hartu nahi dutenek mezua bidali beharko dute kultura@alkiza.eus helbidera edota 688 60 44 66 telefono zenbakira. Bisita egiteko 5 euro ordaindu beharko dira zentroan bertan. Alkizarrentzat eta 12 urtez azpikoenentzat bisita doakoa izango da eta guztiak 11:00etan hasiko dira.

Fagus Alkiza interpretazio zentroa 2013an sortu zen. Hernio-Gazume Kontserbazio Eremua ezagutzera ematea da bere helburua eta bertan dauden altxorrek kontserbatu eta hobetzeko gizarte kontzientziatzea. Zentroa da naturagune hau ezagutzeko eskualdean dagoen azpiegitura bakarra eta eremura sartzeko ate nagusia. Alkizako Udaleko arduradunek esan dutenez, apurka-apurka aldatzen eta osatzen joan da erakusketa: «Ez dugu estatikoa izatea nahi, baizik eta bizia eta garai berrietara moldatzen dena». Azken hila-beteetan erakusketa osatzeko hainbat lan egin ditu udalak. Zenbait informazio panel berri eta elementu berriak gehitu dituzte. Koldobika Jauregi eskultoreak eta Elena Cajaraville artistak, adibidez, harkaiztiaren erreplika egin dute.

Izan ere, Hernio-Gazume babestutako hainbat animalia eta landare espezieren bizitokia da, eta bertan aurki daitezke hainbat habitat, besteak beste, harkaiztiak. Bertan bizi dira hainbat sai-arre eta saguzar. Hemendik aurrera, harkaiztien erreplika ikusgai izango da Fagus Alkiza interpretazio zentroan eta Alkizako Udaletik deia luzatu diete herritarrei, bertara bisita egin dezaten aurtengo udan.

Herrian bildutako uzta erakutsiko dute larunbatean Iruran

Irura Bizi elkarteak Uzta Giro festa egingo du eta Ametsa pilota elkartearen, Irura Moretuz taldearen, Irurako Gazte Asanbladaren eta udalaren laguntzaz antolatuko du eguna

Erredakzioa Irura

Irura Bizi elkarteak Uzta Giro egingo du larunbatean. Uztailean gozatzeko moduko giroa egiten duelako eta kalean jarduerak ikusarazi nahi dituztelako antolatzen du egun hau elkarteak. Goizargi Oruesagasti kideak, Uzta Giroekin lortu nahi duten beste helburu bat ere aipatu du: «Herriko uzta begien bistan jarri nahi dugu eta festan parte hartuko duten artistak Irurakoak bertakoak ditugu».

2018an ospatu zuen Irura Bizi elkarteak lehen aldiz Uzta Giro, gazte asanbladarekin elkarlanean. «Ostiralean egiten genuen eguna eta gazteek antolatutako ekintzaren batek izaten zuen segida larunbatean», esan du Oruesagastik. Aurten berrikuntzekin dator, ordea, eta egun bakarrean pilatu dituzte ekitaldi guztiak. Irura Bizik herriko beste hainbat eragileekin elkarlanean gauzatuko du egitaraua. «Ikusten genuen orain arte elkarlanean gauza gutxi antolatzen genituela. Pandemia betean, iaz, *Bizi gira... Kutxa bira!* izan zen elkarrekin egin genuen ekitaldietako bat. Oso-oso ondo baloratu genuen eta hari horri tiraka erabaki genuen Uzta Giro festa honi beste forma bat ematea eta herriko eragileekin batera antolatzea».

ADIN GUZTIETARAKO EKINTZAK

Irura Moretuz talde feminista da Uzta Giroren antolakuntzara batu den eragileetako bat. Etzira, umeentzako jolasak antolatu dituzte 10:00etan hasita. Oihana Ugarte Iriarteren eskutik xilografia sormen tailerra egingo dute 10 urtetik gorakoek eta 11:30ean ginkana egingo dute 10 urtetik beherakoek.

Herriko pilotarien uzta ere erakutsi nahi dute Ametsa pilota elkarteak larunbateko festan. «Xareko pilota partida izango da Trinketearen eta herriko pilotari gazteak izango dira saioa eskainiko dutenak. Horregatik deitu



Jolasak egin zituzten plazan 2018an antolatu zuten lehen Uzta Giro festan. J.M.

UZTA GIRO 2022

Uztailak 2, larunbata

10:00. Oihana Ugarte Iriarterekin xilografia sormen tailerra, 10 urtetik gorako haurrentzat.
11:30. Ginkana, plazatik abiatuta 10 urtetik beherakontzat.
12:00. Xareko Uzta Berria partida Trinketearen. Julen Zabalegi eta Aimar Heras, Matxalen Mendizabal eta Oier Iturberen arteko partidak.
12:30. Triki-bertsu poteoa plazatik

abiatuta. Bertsolaria: Jon Mendiluze. Trikitilariak: Amane Tejeria eta Izadi Lasa.

14:15. Herri bazkaria plazan.

Bazkalostean. Arratsalde pasa DJ Bullekin. Tartean Gazte Asanbladaren eskutik jolasak.

21:00. Barrikotea. Mahaiak jarriko dira eta sagardoa egongo da.

Afalostean. Gauerdira arte, DJ Lambretta.

diogu Uzta Berria partida horri», esan du Irura Bizi elkarteak kideak.

Herritarrak elkarrekin harremanetan jartzea ere bada etziko egunaren helburuetako bat. Herri bazkarian bilduko dira horretarako plazan. Mahai tresnak eta edalontziak norberak eramane beharko ditu etxetik. «Antolakuntzatik txotxetik edateko sagardoa jarriko dugu eta modu horretara herritarrek elkarrekin egoteko eta kontu batzuk esateko aukera izango dute», aipatu du Oruesagastik.

Bazkalostean DJ Bull herritarrek jarriko du giroa eta aurreko urteetan bezala gazte asanbladako kideek jolasak antolatuko dituzte. Gauean, berriz, barrikotea egingo dute eta afalostean DJ

Lambreta herritarrak jarriko du musika.

DEATH CAFE SAIOA GAUR

Festa egunak antolatzeaz gainera, Irura Bizi elkarteak oso bestelako egitasmoak ere badauzka martxan. Gaur, Bihotzetik elkarrekin elkarlanean, heriotzari buruz hitz egiteko saioa egingo dute 19:00etan herri eskolan.

«Martxoan egin genuen lehen-dabiziko saioa eta beste bi ditugu aurreikusita. Arau eta lokarrik gabe, heriotzaz eta doluaz hitz egiteko gune bat sortu nahi genuke herrian», aipatu du Oruesagastik. Etxean norbait falta dutenentzat Eguberriek hartzen duten esangura bereziagatik, ordurako beste saio bat antolatzeko asmoa du Irura Bizik.

Herri ostatuaren oinarriak adostu dituzte herritarrek

Iruran egin duten parte hartze prozesuan 15 lagun aritu dira eta ostalaritza zerbitzuaren ezaugarriak adostu dituzte

Erredakzioa Irura

Irurako herritarrek herri ostatu bat zer den galderari tiraka herriko ostatua izango den proiektua definitu dute. Elhuyar fundazioa aritu da prozesua dinamizatzen. Partaidetza prozesura hurbildu diren 15 lagunen iritziz ostalaritza zerbitzuaz harago, irurarren beharrei erantzun behar die herri ostatuak, hau da, herritarrei irekitako zerbitzua izan beharko du.

Tabernari dagokionez herritar guztientzat irisgarria izango den eskaintza bermatu beharko dela adostu dute herritarrek, zehazki, ogitarteko, plater konbinatu eta eguneko menuei lehentasuna emanez; tokiko eta garaiko produktuen erabilera sustatu beharko dute bertan eta tokiko ekonomiaaren alde egin.

Bestalde, eta 2021eko udazkenean egindako partaidetza prozesuan adostutakoa berretsiz, kultur ekitaldietarako espazio bat izatea lehenetsi dute. Kasu honetan, herri ostatuak Irurako kultur mahaiarekin elkarlanean jardun beharko duela erabaki dute, bertako programazioa herriko eragileekin koordinazioan osatuz.

IRIZPIDEAK ZEHAZTUZ

Bi alde nagusi hauez gain beste hainbat aldagaien inguruan hausnartu eta eztabaidatu dute, hala nola, herri ostatuaren irekiera egutegiaz eta ordutegiaz; herri-ostatuko kudeatzailearen eta Irurako Udalaren arteko harremanaz eta koordinazioaz; eta ostatuko hizkuntza irizpideez.

Partaidetza prozesua amaituta, hurrengo urratsak ematea Irurako Udalari dagokio. Batetik, hausnartu eta adostutako proiektua esleipen pleguetan jaso eta prozedura publiko egin beharko du; eta bestetik, Zahar Etxea zenaren espazioan obrak egin eta lekua atondu beharko du. Lehenengo pausoak emateko 50.000 euroko diru saila sortu du udalak aurtengo aurrekontuan.

Txintxarri abesbatzaren azken emanaldia, etzi

62 urteren ondoren ziklo bat itxiko du Txintxarri abesbatzak; aurrerantzean kultur elkarte moduan jarraituko duela azaldu dute, eta ez diote utziko euskal kantagintza bultzatzeari

Erredakzioa Alegia

Alegiako Txintxarri Txiki eta Txintxarri abesbatzek emanaldi berezia eskainiko dute larunbatean, uztailaren 2an, Joan Bataiatzailea Deunaren elizan izango da 20:00etan. Berezia izango da, Txintxarriren azken emanaldia izango baita. Txintxarri Txiki abesbatza, ordea, ez da desagertuko, baina irailetik aurrera Loatzo Musika Eskolak hartuko du bere ardura.

Duela 62 urte sortu zuten Txintxarri abesbatza eta ziklo baten amaiera iritsi dela esan dute. «Abesbatzak sorrerako helburuak bete dituela uste dugu: herritarrak kantagintzan trebatzea, euskal kantuak eta euskal musikagileen lanak ezagutaraztea, eta herriari kantagintzari lotutako emanaldiak eskaintzea. Bide batez, Alegiaren izena Euskal Herriatik kanpo zabaldu dugu urteotan. Honenbestez, Txintxarri abesbatzaren amaierak herrian kantagintzaren alorrean proiektu berrien sorrera ahalbidetu dezakeela uste dugu», esan dute Txintxarri Abesbatza Kultur Elkarteko kideek.

Orain arte egindako ibilbidea erekin harro azaldu dira abesba-

tzako kideak. Bostehunetik gora kontzertu eskaini dituzte herrian eta ehun baino gehiago Euskal Herriko beste hainbat txokotan. Guztira, 15 bat bidaia egin dituzte Euskal Herriatik kanpo. Bostehunetik gora partitura ikasi ditu abesbatzak, horietatik erdia baino gehiago euskaraz. 250 abeslari izan ditu Txintxarri abesbatzak: 105 gizon eta 145 emakume. «Herriko belaunaldi desberdinen arteko zubi lana egiteko gai izan da».

Gogoratu dute era berean, abesbatzak lemazain «ezin hobek» izan dituela: Joxe Gastesi Iturrioz eta Garbiñe Orbegozo Senperena. «Txintxarri Abesbatza Kultur Elkartek biziki eskertzen die bie hirurogeita bi urteotan egin duten lan eskerga, nekezina, irabazi asmorik gabea. Sekulako ekarpena egin diote abesbatzari, euren konpromisoak ez du mugarik izan».

Txintxarri abesbatza desagertuko bada ere, Txintxarri Txikik jarraituko du, baina Loatzo Musika Eskolaren ardurapean. Txintxarri Abesbatza Kultur Elkartea ez da desagertuko. «Lanean segituko du aurrerantzean ere euskal kantagintza bultzatzeko ahaleginean.

EMANALDI BEREZIA

Larunbatean Garbiñe Orbegozoren zuzendaritzapean abestuko dute eta Mariaje Rekondok lagunduko die pianoarekin. Lehendabizi, taldeko txikienak ariko dira kantuan. Mikel Urdangarinen *Non geratzen den denbora* abestiarekin hasiko dira eta ondoren Pirritx, Porrotx eta Mari-mototsen *Irri egiten duenari*, Ken Zazpiren *Ilargia* eta Izaroren *Paris* eskainiko dituzte. Amaitzeko, Soeur Sourire moja belgikarraren *Munduko bideak* kantua abestuko dute. Lide Alustiza, Maria Alvarez eta Intza Lopetegik lagunduko diete akordeoiarekin, hainbat abestitan.

Bigarren zatian abeslari helduenak arituko dira. *Kantatuko nizuke* abestiarekin hasiko dute euren jarduna, eta ondoren, Juncal Guerrero musikagile andoaindarraren *Bi bihotz* abestia eskainiko dute. Ondoren, Ez dok amairu abeslari taldearen abestietako batzuk eskainiko dituzte.

Emanaldiaren amaieran, batera abestuko dute bi abesbatzek. Txintxarri abesbatzaren 50. urteurrenerako Xabier Sarasolak eginiko eta Felix Irazustabarrena herritarraren hitzak dituen *Pausoz pauso* abestuko dute.

✉ **GUTUNA**

AGUR, ESKER ONEZ

Ekainaren amaieran erretiroa hartu dut eta gutun honen bidez eskerrak eman nahi dizkiet Ibarako Bitxori frutategitik pasa diren guztiei. Bihotz zabalik zerbitzatzen saiatu naiz, produktua kalitatea zainduz, nire presentzia zainduz eta zuen zerbitzura jarritz eta onena emanez.

Horrela irakatsi zidaten: esker onekoa izatea, bihotzaren kultura sustatzea, konfiantza ematea eta, horrela, guztiaren eta guztiori kalitatea erakustea. Barkatu noizbait zakarra eta lehorra izan banaiz, baina sinpatiaren indarrez saldu nahi izan dut, bizitza eta zerbitzua atseginagoa eginez

fruta-dendan. 45 urte luze izan dira dendan, sendotasunez eta gogotsu aritu naiz fruta-saltzaille, lana atseginagoa egiten. Eskerrik asko, benetan, zuen hurbiltasunagatik eta ulermenagatik, zuen laguntzarik gabe ezin izango zelako izan profesionalki izan zena.

Berrogei urte luze hauetan egin dudan ibilbide profesionalean, nekiena ahalik eta hobekien egiten saiatu naiz, eta aha-lerin eta tinkotasunez egin dut, lan eta arduraz. Eskerrik asko Ibarako Merkatari Elkarteari eta nire dendara hurbildu den Tolosaldeko jende guztiari. Gaur Bitxori frutategia itxiko dut. Eskerrik asko!

Bitxori Rodriguez Ibarra

Auzolangin(l)tza proiektuaren baitan, tailerra, bihar

Tolosako kultur etxean izango da 09:30etik 12:30era, eta Begoña Garmendiak eta Andoni Zulaikak hartuko dute parte

Erredakzioa Tolosa

Eusko Ikaskuntzak, Tolomendik eta Huhezik, Gipuzkoako Foru Aldundiaren laguntzarekin, esperientzia berri bat jarri zuten abian iaz, Tolosaldean auzolanaren kulturaren inguruan. Hala, Auzolangin(l)tza izena jarri diote proiektuari, eta lanak lau fasetan egituratu dituzte. Lehenengoan, auzolan kontzeptua definitu zuten euskal tradizioan eta gaur egungo errealitatean. Bigarrenean, berriz, auzotarren eta elkar-lanen kulturaren zerbitzurako tresna gisa definitu zituzten auzolanaren ahalmenak.

Ekainetik uztailera hirugarren fasea egingo dute. Esperientzia praktikoaren bidez, auzolanaren kulturaren eraginkortasuna probatuko dute, bi lan saio eta bi prestakuntza tailerren bitartez. Lanei dagokienez, auzolanean Tolosako Dama Iturria eta Lizardiren monumentua garbitu dituzte. Tailerretan lehena, berriz, bihar izango da, Tolosako kultur etxean, 09:30etik 12:30era bitartean. Begoña Garmendia, Tolosako Udaleko idazkariak eta Zabalduz Kooperatiba-Agintzariko Andoni Zulaikak hartuko dute parte. Uztailaren 15ean izango da bigarren tailerra.

Trinketeko aparkalekuan igerilekua jarriko dute

IRURA // Udalak bi igerileku jarriko ditu Trinketeko aparkalekuan, uztailaren 4tik 29ra. Astelehenetik ostiralera egongo dira erabilgarri, 16:00etatik 19:00etara. Igerileku ertainak sei pertsonentzako edukiera du eta igerileku handiak 12 pertsonentzako. Handian, 2014. urtera arte jaiotakoak sartu ahal izango dira eta 2018 edo 2019an jaiotakoentzat igerileku txikia jarriko da.

Lisboako gazte abesbatzaren kontzertua, bihar

TOLOSA // Hodeiertz abesbatza Kantik musika zikloaren laugarren edizioa antolatzen hasi da. Hala, Bihar, Coro Juvenil da Universidade de Lisboa abesbatzak kontzertua eskainiko du San Frantzisko elizan, 19:30ean. 2005ean eskaini zuen taldeak lehen kontzertua, eta gazte abesbatza ezagunenetakoa da. Zikloaren barruan udazken aldera beste bi kontzertu izango dira.



'INDIO'-RI OMENALDIA EGIN DIOTE

Amarozko Antzerki Astearen barruan Iñaki Alonso *Indio* urtarrilean zendu zen auzotarra omendu dute. Hain justu, *Mila esker*, *Indio* izenburupean hitzaldi solasaldia egin zuten atzo, eta Auzo-etxearen kanpoaldean egin zuten ekitaldia. Amaia Agirre bertsolariak Akerbeltz espeleologia taldeko kidearen omenezko bertsoak bota zituen, agurra dantzatu zieten bere gertukoei, eta bere omenez mosketoia jarri zuten Auzo-etxearen hormetako batean. *Eskerrik asko Indio. Heroiek ez dute kaparik irakur daiteke mosketoian.* I.T.

Berreskuratu zutenei aitortza

Atzo festetako egun handia izan zuten Asteasun, San Pedro eguna; hiru urteren ondoren berriz egin zuten dantza-soka, eta dantzari gazteek opari ederra egin zieten helduei

Josu Artutxa Dorronsoro

Asteasuarrek gogoz ospatu zuten atzo festetako egun handia. San Pedro elizako meza nagusia amaitu ondoren, *Alkate soinu*a jo zuten txistulariek, eta Pili Legarra alkateak eta udaletxeko zinegotziek ohiko ibilbidea egin zuten. Ondoren, dantza-sokaren txanda heldu zen. 2019an egin zuten azken aldiz, eta aurten, ohiturari jarraituz, dozena bat dantzari elkartu ziren eliza atarian, txistulariek lagunduta, bertaratu ziren herritarren aurrean dantzatzeko. Aurrekuaren eta atzeskuaren aginduetara, desafioa, azeri-dantza, fandangoa, arin-arina eta kalejira dantzatu zituzten. Azken hiru dantzetan, gainera, asteasuar gehiagoren laguntza izan zuten.

Une hunkigarriena, ordea, agurra dantzatzeko orduan heldu zen. Haritz Mujika eta Izaro Garmendia dantzariak, ikusleen artera sartu, eta bere garaian dantza-soka berreskuratu zuen herritar bat atera zuten plazara. Gero, gauza bera egin zuten dantza-sokan zeuden beste hiru kiderekin, baita atabala jotzen ari zenarekin ere; hauek ere ohitura berreskuratu zutenetakoak dira. Horrela, agurra herritar bati dantzatu ordez, talde bati dantzatu zieten, eta aurrekuak eta atzeskuak soilik egin ordez, gainerako dantzari guztiek ere egin zuten, dantzari gazteek helduei, alegia. Agurra dantzatzeaz gain, zapi bat oparitu zieten, egindako lana eskertzeko.

LEABURUN, HAURRAK JOLASEAN

Leaburun ere ospatu zuten atzo San Pedro eguna. Goizean, meza izan zen, eta ondoren, hamaiketako egin zuten herritarrek ostatuan; bazkalostean, jolasak izan ziren haurrentzat. Arratsalde pasa ederra izan zuten herriko umeek, eta era guztietako jolasetan aritu ziren. Aulki jolasean, txikienak izan ziren onenak; gaztetxoak, berriz, hobeto moldatu ziren koilara ahoan jarri eta arrautzak garraiatzen, puxikekin eta futbolekin ere jolastu zuten ilundu aurretik. Jolasen eta futbol partiden artean, txokolatea edan zuten, indarrak hartzeko.



Dantza-soka amaitu ondoren, argazkia atera zuten parte-hartzaileek. J.A.



Asteasuko Elizmendi auzoko eliza atarian egin zuten atzo dantza-soka. J.A.



Dantza-soka berreskuratzegatik, zapiak oparitu zikieten dantzari helduei. J.A.



Alkateak eta zinegotziek, ohiko ibilbidea egin zuten meza amaitzean. J.A.



Haritz Mujika eta Jon Olano, azeri-dantza dantzatzen. J.A.



Leaburuko haurrek jolasean ospatu zuten San Pedro eguna. J.A.



Alegiako gaztetxoak bilduta, ikasturteko une batean. ATARIA

Alegian gaztetxoek ekintzailatza eta parte hartzea bultzatu dute

Alegiako Mendi Asanbladak udalaren babesarekin jarri du martxan ekimena, eta emaitzarekin «gustura» daude

E. Maiz Alegia

Alegian gaztetxoek ekintzailatza eta parte hartzea bultzatzeko ekimena martxan jartzea erabaki zuen, iaz, Alegiako Mendi Asanbladak udalaren babesarekin. Horretarako Asteasuko Mattin Gizarte Abenturarekin elkarlanean hasi zuten bidea, eta ikasturtean zehar eginiko lana «arrakastatsutzat» dute.

Urrian eman zieten hasiera, horretarako diru laguntzak biderratu eta gero. Horrela, lan deialdi baten bidez ikasturte osorako Mattin Gizarte Abenturako hezitzaile bat kontratatu zuten.

Orain, balantzea egiteko garaia iritsi zaiela aitortu dute: «COVID-19aren egoerak eta neurriek baldintzatuta hasi bazen ere gure proiektua, poliki-poliki bere bidea egiten joan da». Eta Aste Santurako lehen ekimena antolatu zuten gazteek: Herri-

rrentzat Mendi Ginkana. «Ekimena eta emaitza arrakastatsua izan zela esateko moduan gaude, ia 50 pertsonen parte hartu baitzuten».

HILEROKO BATZARRAK

Hilero antolatzen joan dira gaztetxoak eta batzarrak egin dituzte; «gaztetxoek beharrak eta nahiak bildu eta aztertu ondoren, berauek udalera bideratzeko balio izan du gure proiektuak», zehaztu dute mendi asanbladatik. Orain, «eskaerei erantzuna emanez, udalak Gazte Udalekuak antolatu ditu uda honetarako», kontatu dute.

Mendi asanbladako kideek, eskerrak eman nahi dizkiete bai Mattin Gizarte Abenturari eta baita Alegiako Udalari ere, «emandako laguntza eta egindako lanarengatik». Eta mezu garbia utzi dute: «Elkarlanean herria eraikitzen jarrai dezagun».

Frontoi Txikiko V. Txapelketan izena emateko azken eguna

IKAZTEGIETA // Ikaztegieta festetan jokatu da Frontoi Txikiko V. Txapelketako finalak, eta parte hartu nahi dutenek gaurkoa dute izena emateko azken eguna. Txapelketan 13 urtetik gorako herriko neskek, 13 urtetik gorako herriko mutilak, eta 7 eta 12 urte arteko Ikaztegieta eskolan dabilzan neska eta mutilak parte hartu dezakete. Izena Ikaztegieta Ostatuan eman beharko da, eta izena eman ostean zehaztuko dituzte jokatu beharreko partidak.

Ikaztegieta Lauko Torneoko izen ematea, zabalik

IKAZTEGIETA // Uztailaren 16an jokatu da Ikaztegieta I. Lauko Torneoa. Talde bakoitzean gutxienez lau lagun eta gehienez sei egon beharko dute. Jokoa, berriz, atezaina eta hiru jokalarik. 16 urtetik gorakoak izan beharko dute, eta taldeak mutilenak, neskenak edo mistoak izan daitezke. Izen ematea 50 euro da, eta azken eguna uztailak 8. Izena emateko 652 130 335 zenbakira deitu behar da. Atezainak ezik, beste guztiek kolore bereko kamixeta eraman beharko dute.



Aratz Alkain gaztea da aurtengo San Martingo etxola ireki duena; iraila amaiera bitarte izango du zabalik. E. MAIZ

San Martingo etxolan bisitarien zain daude

Amezketako San Martinen udalak etxola jarria du taberna zerbitzua eskaintzeko, eta aurtengo Aratz Alkain herritar gazteak hartu du ardura; 11:00etan zabalitzen du

Eneritz Maiz Etxarri Amezketako

Aratz Alkain (Amezketako, 2003) herritar gazteak ireki du udalak San Martin auzoan jarria duen etxola. Hilaren 20an egin zuen inaugurazioa, eta harrez gero, eguraldiak asko lagundu ez badio ere, zabalik du taberna zerbitzua eskaintzen duen etxola.

Elektrikari ikasketak amaitu berri ditu, eta udara begira lanerako «gogoz eta gustura» dela kontatu du gazteak. Hori horrela, aukera polita iruditutzaion herrian bertan etxolan lan egitea. «Izan zitekeen aukerarik onena izan da», dio. «Diru pixka bat irabazi eta esperientzia berri bat bizitzeko asmoz», apuntatu zela kontatu du Alkainek. Beste inor animatu ez zenez, berari egokitu zaio taberna zerbitzua eskaintzeko ardura hartzea, eta lana egiteko ilusioarekin dagoela azpimarratu du.

San Martinera gerturatuz gero, hasteko, paisaia ederraz gozatzeko aukera eskaintzen du atsedenera, eta Alkainek edari freskoak ditu zerbitzatzeko, eta baita kafe makina ere, kafeak edota infusioak eskaintzeko. Nola ez, etxolan ez da falta, gozokirik ez eta izozkirik ere. Jatekoari dagokionean, «oraingoz hotzak baino ez», zehaztu du. Jatekoarena zailago ikusten duela



Herritarrek trago fresko bat oliba batzuekin hartzen. E. MAIZ

esan du, eta aurrera begira laberen bat jartzea aztertzen ari da. Hasi besterik ez da egin lanean, eta martxa hartu nahian ari da. Aurrera begira lana egiteko jendearen joan-etorriak eta eskarrek zehaztuko diote.

Iraila amaiera bitarte izango du zabalik Alkainek. Eguraldiak eragin zuzena du, ordea, zerbitzuan: «Eguraldi txarra denean itxita egongo da, ez da inor etortzen; eguraldi onarekin aprobeztatzeko tokia da».

11:00etatik 23:00etara eduki du zabalik. «Gustura» da lehen egunetan herritarrek eman dioten erantzunarekin. Inauguraziora herritar dezente joan zela kontatu du; «San Joan sua ere

egin genuen eta jende dezente etorri zen».

Alemaniko bikote gazte baten bertan pasa berri du gaua, eta Alkainen kafea eskertu dute. Baina, bertakoei egin die dei; bai herritarrei eta baita eskualdekoei ere, San Martinera gerturatzen. Naturaren erdi-erdian atsedenera bikaina dago egunpasa eginez joateko.

Mendi buelta ederrak egin daitezke San Martindik abiatuta, edota atsedenera hartzera joateko ere leku proposa da. Mahaiak eta aulkiak ez dira falta, eta parrik ere badira jatekoarekin joateko. Etxolan, aldiz, ez da sagardo, ardo edo garagardo freskorik faltako.

Irati Saizar Artola

Preso guztiak etxean izatea eta salbuespen politikarekin amaitzea. Bi eskakizun horiek egingo dituzte abuztuaren 7an, Euskal Herriko hondartzetan, Etxerateg deituta egingo diren mobilizazioetan. Gipuzkoan, 12:00etan izango dira hitzordu guztiak, eta Tolosaldeko herritarrei Zarauzko Musika plazan egingo den mobilizazioetan parte hartzeko gonbidapena egin diete, besteak beste, Maribi Beldarrain Aitor Agirrebarrena lizartzar presoaren amak eta Jon Ijurko Etxeratego kidea.

Bi urte dira, tantaka bada ere, presoak gertuko espetxeetara hurbiltzen hasi zirela; lehenik Euskal Herriko gertuen zeuden espetxeetara eta Euskal Herriko etara gero. Hala ere, Etxeratego bozeramaile den Xochitl Karasatorrek esan duenez, apiriletik ez da mugimendurik egon eta oraindik 65 euskal preso dira Euskal Herriko kanpo daudenak.

Beldarrainek semea Villabonako espetxean du egun, Asturiasen. Lehen Puerton zegoen, Cadizen. Zentzu horretan, «hobeto, baina hala ere etxetik 400 kilometrorra» dagoela dio. 400 kilometro joaten eta beste hainbeste bueltan. Duela urtebete izan zen aita Aitor Agirrebarrena euskal preso eta orain haurraren egin behar izaten dituzte bidaia: «Bidea luzeegia da haur batekin egiteko; hiru hilabete ere pasa ditu aita haurra ikusi gabe».

Errepideko arriskuak eta gastuek ere hor jarraitzen dute. Haurraren doazenetan gaua Asturiasen pasa behar izaten dutela kontatu du, ezin dutelako joan-etorria egun berean egin. «Hotela hartu behar izaten dugu eta gasolina dagoen prezioan egonda, gehiegizkoa da». Bidaia bakarra aprobetxatzen dute fa-



Maribi Beldarrain, Aitor Agirrebarrena presoaren ama, eta Jon Ijurko Etxeratego kidea. I.S.A.

Urrunketarekin amaitzeko eskatuko dute beste behin

Abuztuaren 7an hondartzetako mobilizazioak deitu ditu Etxerateg; eskualdeko herritarrei Zarautzera joateko gonbidapena egin diete preso senideek

miliako bisean bisekoa, bisita intimoa eta lokutorioa egiteko.

Semea gerturatzeko esperantza gehiegirik gabe dago, ordea, Beldarrain: «Urtebetez ohitu ginen ostegun edo ostiraletan mugikorra alboan izaten, nor gertu-

ratuko zuten jakiteko, ilusio horrekin. Galdu egin dut ilusioa, berde ikusten dut kontua».

Pandemiako bi urteak ere gorrak izan direla dio Xochitl Karasatorrek. «Espetxe zuzendariak hartutako neurriak espetxe-

ak guztiz ixtea, bisitak kentzea edota presoak haien komunikatzeko eskubidearen gainetik are gehiago isolatzea izan ziren». Espetxe barruan neurri eraginkorrik hartu ez izana ere salatu du. «Beraiek barruan ez zeukaten

inolako neurririk, baina guk ezin genuen bisita bat egin, ezta kristala tartean izanda ere». Espetxe-etan, gaur egun, «kostata» bada ere, normaltasuna itzuli dela dio; hala ere, galdutako bisean biseko guztiak berreskuratzea nahiko lukete, lortuko dutenik uste ez badute ere.

BESTE ALDARRIA

Salbuespen politikarekin amaitu eta lege arrunta aplikatzeko eskaria ere egin nahi dute hondartzetako mobilizazioetan. «Salbuespen legearekin behingoz amaituko balute, preso gehienak moduren batean edo bestean kalea zapaltzen egongo lirateke», esan du Karasatorrek. Lege arrunta aplikatuta, 151 preso irteera baimena eduki beharko lukete, eta egun, sei preso dira baimenak aplikatuta kalera ateratzen direnak.

122 preso kondanaren erdia bete dutenez, hirugarren gradu dago, baina soilik 20 daudela hirugarren graduarekin azaldu du. Eta kondanaren hiru laurdenak bete dituzten presoak espetxetik ateratzen hasi beharko luketela ere gaineratu du; eta momentuz, 52 direla hiru laurdenak beteta dituztenak eta oraindik espetxean jarraitzen dutenak.

Momentu honetan, Etxerateg dituen datuaren arabera, 184 euskal preso daude espetxeetan, 26 emakume eta 159 gizon. «Espainian kondena betetzen ari diren preso zati handi bat Euskal Herrian dago, 101 preso, hain zuzen, baina ezin da ahaztu 65 preso direla Euskal Herriko kanpoko espetxeetan daudenak».

Hori horrela, herritar bakoitzak abuztuaren 7an aletxo bat jar dezala eskatu dute Etxerateg. «Gure eskuetan dago, neurri batean behintzat, mobilizazioak eginez agintariak presionatzea; gu mugituz, ea haiek ere mugitzen diren; izan dezagun esperantza», esan du Ijurkok.

Hilberriak eta urteurrenak



Jose Mari Bergara Etxabe

- Goian bego -

Bidaia goxoa opa diagu.
Ikusiko gaituk!!!

AIZARNAKO LAGUNAK

AIZARNAN, 2022ko ekainaren 30ean



Joxe Mari Bergara Etxabe

Udazkeneko haize goxoa
ekaitz bihurtu zenean,
gaindiezina gertatu hire
ibilbide gardenean.

Arlo askotan lagun ugari
estimatua denean,
maite hautenak azkeneraino
hor heure aldamenean.
Amets goxotan hegan egizak
maitasunan oihanean.

BERGARA ETXABE SENDIA

AIZARNAN, 2022ko ekainaren 30ean

Ataria jarrita Urola Kostako eta Goierriko Hitzetan DOAN

Eskelak orain merkeago!

TXIKIA (82mm X 64mm): 110 € • Harpidedunentzat 55 €
HANDIA (124mm X 64mm): 160 € • Harpidedunentzat 80 €
ESKERTZA (38mm X 64mm): 60 € • Harpidedunentzat 30 €
bez barne

ESKELAK • ataria@ataria.eus • Tel.: 943-65 56 95
Asteleheneetik asteazkenera 18:30ak arte hartzen ditugu •
Ostegunetan 11:00ak arte hartzen ditugu

Euskal Herriko Igeriketa Txapelketa Usabalen, asteburuan

TOLOSA // Usabal igerilekuak larunbatean zein igandean absolutu eta junior mailako Euskal Herriko Txapelketa hartuko du. Gipuzkoa, Bizkai, Araba eta Nafarroako igerilariak parte hartuko dute, eta guztira 250 inguru izango dira. Horietatik 25 igerilari inguru Tolosaldea IKT taldekoak izango dira. Goiz eta arratsalde izango dira saioak, larunbatean zein igandean. Goizeko saioak 10:00etan hasiko dira eta arratsaldekoak, berriz, 17:00etan.

Festetako Pilota Txapelketan, bigarren finalerdia bihar

ALEGIA // X. Alegiako Festetako Pilota Txapelketaren bigarren finalerdia jokatu da bihar, uztaillak 1, 19:00etan hasita, herriko Elorri frontoian. Kadeteetan Goñi-Castro eta Murua-Leonet ariko dira nor baino nor, eta nagusietan, Murua-Irazustabarrena eta Zubeldia-Iztueta. Aurreko ostiralean jokatu ziren txapelketaren lehen finalerdiak. Kadeteetan Cestau-Iturrioz bikoteak 20-22 irabazi zion Bidezabal-Egañari eta nagusietan Elola-Aizpuru bikoak 22-11 irabazi zion Alberdi-Ugartemendia bikoteari.

Eskualdeko pilotarien Udaberri Sariko eta lau eta erdiko emaitzak

PILOTA // Errendimenduko Udaberriko Sarian, eskuz binaka, alebilen 1. maila, Ekialdean, Behar Zanako Ekaitz Arruti eta Oier Elola txapeldunorde izan dira; eta alebilen 2. mailan, Gipuzkoan, Intxurreko Egoi Garai koetxea eta Haritz Leo txapeldun. Gipuzkoako Txapelketan, eskuz lau eta erdian, kadeteen 1. maila, Mendebaldean, Tolosako Jokin Tolosa txapeldun; kadeteen 2. mailan, Ekialdean, Intxurreko Josu Collado txapeldunorde; jubenilen 1. mailan, Ekialdean, Tolosako Ander Iraeta txapeldun eta Behar Zanako Eñaut Aranburu txapeldunorde; jubenilen 2. mailan, Gipuzkoan, Zazpi Itturriko Beñat Gorostidi txapeldun; jubenilen 2. mailan, Mendebaldean, Zazpi Itturriko Ander Balerdi txapeldunorde; eta nagusien 2. mailan, Gipuzkoan, Intxurreko Julen Oiarbide txapeldun.

Tolosaldea trainerua, lehian hasteko gogoz

Eskualdeko traineruak debuta egingo du maila gorenean, Euskotren Ligan, asteburu honetan; bi estropada izango dituzte, larunbatean Bilbon eta igandean Donostian



Orain gutxi egin zuten aurtengo Tolosaldea traineruaren aurkezpena Tolosan. NAIARA ROLDAN DE ARANGUIZ

Imanol Garcia Landa

Tolosaldea traineruak hainbeste esperotako debuta egingo du larunbatean Euskotren Ligan, arraunaren maila gorenean. Bilbon izango da lehen estropada, zehazki IV. Bilboko Bandera, eta 17:40ean hasiko da. Igandean izango da hurrengo estropada, Donostian, VI. Bandera Fabrika. «Sentsazio onak ditugu, eta arraunlariak gogoz daude hasteko. Orain iristen da politena, onena, eta baita egoera ezezaguna ere beraientzat. Baina ondo gaude», esan du Ramon Erostarbe entrenatzaileak.

Prestaketa «oso gogorra» izan dela gaineratu du Erostarbek, aurreko urtetik aurtengora guztiz aldatu delako: «Euskotren Ligan bi estropada ditugu astebururero, eta aurreko urtean bakarrik pare bat asteburu izan genituen bi estropadekin. Eta psikologikoki ere prestaketa aldatu egin behar da, jende askoren aurrean ariko direlako, telebistak zuzenean ematen duelako, eta beste hiru aurkariak selekzioak direlako. Beraz, iazkoa baino askoz maila handiagoa izango da».

Donostia Arraun Lagunak, Orio eta Donostiarrak dira Tolosaldea traineruaren aurkariak.

Orain gutxi Gipuzkoako Txapelketa jokatu dute, eta Orio izan da lehen postuan, Tolosaldea bigarren, Donostia Arraun Lagunak hirugarren eta Donostiarrak laugarren. «Oso liga estua izango da, eta akatsa egiten duena azken postuan geratuko da, eta denean asmatzen duenak irabaziko du estropada. Irabaztea oso garesti egongo da», gaineratu du entrenatzaileak. «Guk Donostiarrari nahi genion irabazi eta hori lortu genuen. Gustura nago arraunlariak egin zuten estropadarekin, asko borrokatu zutelako postuari eusteko».

Erostarbek Donostia Arraun

ESKUALDEKO ARRAUNLARIAK

Euskotren Liga

Tolosaldea. Itsaso Aizpurua (Zizurkil), Maialen Amondarain (Tolosa), Itxaso Aranburu (Tolosa), Olaia Barriuso (Trintxerpe), Naroa Becerril (Tolosa), Ane Egues (Elduain), Malen Eskitxabel (Pasai Antxo), Irati Gurutxarri (Zarautz), Irati Hernandez (Tolosa), Arene Lacoste (Donostia), Naroa Leonet (Tolosa), Garazi Ormazabal (Tolosa), Malen Oiarzabal (Tolosa), Arene Portularume (Aia), Irene Sierra (Santurtzi), Aiora Sorozabal (Orexa), Garazi Sorozabal (Orexa), Maddi Urdapilleta (Villabona), Uxune Urkia (Idiazabal), Mireia Vicente (Anoeta), Ane Zelaia (Belauntza) eta Uxue Zuriarrain (Amezketta). Ramon Erostarbe (Pasai San Pedro) da entrenatzailea eta Manex Balerdi (Tolosa) laguntzailea.

Donostia Arraun Lagunak. Ane Sanchez (Anoeta) eta Xubane Uribarrena (Lizartza).
Donostiarrak. Olatz Lopez (Tolosa) eta Nerea Perez (Tolosa).
Orio. Ohiane Iraola (Tolosa) eta Nagore Urdapilleta (Bidania-Goiatz).

Eusko Label Liga

Donostiarrak. Joseba Larrarte (Villabona) eta Endika Lopez (Tolosa).
Hondarribia. Jon Lizarralde (Tolosa).
Ondarroa. Xabier Zabala (Aduna) eta Eneko Zabala (Aduna).
Orio. Ugaitz Mendizabal (Irura).

ETE Liga

Hernani. Amaia Belamendia (Bidania-Goiatz), Udane Iraola (Tolosa) eta Eneritz Iruretagoiena (Hernialde).

Zarautz. Maider Perez (Tolosa) eta Izaro Arregi (Tolosa).

KAE1 Liga

Orio. Ander Rekondo (Larraul), Adur Tapia (Asteasu) eta Gorka Toledo (Tolosa).
Sanpedrotarra. Nabil Haimane (Tolosa), Imanol Olasagasti (Aduna), Oier Otegi (Asteasu) eta Mañel Salvarredi (Berastegi).
Zarautz. Ion Jauregi (Berrobi), Xabier Ormazabal (Tolosa) eta Martin Rekondo (Larraul).

KAE2 Liga

Donostiarrak. Endika Garcia de Iturraspe (Tolosa).
Lapurdi. Andoni Leunda (Villabona).

Lagunak eta Orio ikusten ditu favorito lehen bi postuetan egoteko. «Gure helburu nagusia ligako azken postua ekiditea da», esan du garbi entrenatzaileak. Ligan laugarren eta, beraz, azken postuan gelditze denak Euskotren Ligara igotzeko lehian ariko diren bi traineruen kontra jokatu du igoera fasea. Datorren denboraldian, zortzi traineru izango dira Euskotren Ligan. ETE Ligako eta Galiziako Ligako lehen bi traineruak igoko dira zuzenean, eta igoera fasea liga bakoitzeko hirugarrenak jokatu du.

ALDAKETAK TALDEAN

Iazko urtetik zazpi baja izan dira: Mirian Aizpurua, Eider Barba, Janire Izagirre, Irati Lizeaga, Itziar Rezola, Estibaliz Segurola eta Enara Villena. Traineruan lehenengo urtea dutenak, aldiz, zortzi dira: Maialen Amondarain, Olaia Barriuso, Malen Eskitxabel, Irati Gurutxarri, Arene Lacoste, Garazi Ormazabal, Irene Sierra eta Garazi Sorozabal.

Erostarbe entrenatzaileak gogora ekarri du lehen urtea dela maila gorenean, eta «esperientzia hartu eta lasaitasunez aritu» behar direla: «Kontuan izan behar da gure eskifaiaren batez besteko adina 21 urtekoa dela, eta hurrengo eskifaia gazteenaren batez besteko adina 25 urtekoa dela. Lau urte asko dira arraunaren munduan».

Mireia Vicente arraunlari anotarra hasieratik dago Tolosaldea traineruan, eta lehiarako gogoz daudela berretsi du: «Sekulako gogo dugu hasteko. Egia da pixka bat urduri gaudela, baina gogo handia dugu liga martxan hasteko». Ontzi guztiek berdin entrenatzen dutela azaldu du, baina estatxa hartu arte ez dela jakiten nola joango den egun horretako estropada: «ETE Ligan oso ondo ibili gara, baina orain maila bat gorago gaude, eta ikusiko dugu denboraldia nola joaten den».

BILLABONA FKE
Arratzain Futbol Zelaia

Futbol eskolan izen ematea zabalik dago uztailaren 1a arte

Labur.eus/futboleskola22-23

Billabona Fke



OSTEGUNA, 2022KO EKAINAK 30
Argitaratzailea:
Tolosaldeko Komunikazio Taldea SM
Lege Gordailua: SS-1323-2013
Koordinatzailea: Rebeca Calvo Gonzalez
Kudeatzailea: Iban Urdapilleta Alkizaletxe
Egoitza: San Esteban, 20, Tolosa.
Telefonoa: 943 65 56 95.
E-posta: ataria@ataria.eus
Publizitatea: 661 678 818. publi@ataria.eus

Tolosa: 687 410 082. tolosa@ataria.eus
Villabona-Aiztondo: 687 410 022.
villabona-aiztondo@ataria.eus
Anoetalea: 687 410 022.
anoetaldea@ataria.eus
Ibarralea: 687 410 118. ibarralea@ataria.eus
Alegialdea: 687 410 034.
alegialdea@ataria.eus
Kirolak: 673 06 11 32. kirolak@ataria.eus
Bezero arreta zerbitzua: 943 30 43 46



Ataria.eus

ATARIA IRRATIA
107.6 FM

Tolosaldeko Ataria diruz laguntzen duten erakundeak:
Udalak: Abaltzisketa, Aduna, Albiztur, Alegia, Alkiza, Altzo, Amezketza, Anoeta, Asteasu, Balarraín, Belauntza, Berastegi, Berrobi, Bidania-Golatz, Elduain, Gaztelu, Hernialde, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Larrauri, Leaburu-Txarama, Lizartza, Orendain, Oresa, Tolosa, Amasa-Villabona eta Zizurkil

Tolosaldeko Komunikazio Taldea SMko kideak:



BABESTUTAKO EDUKIA

Orexako Ostatura, jateko leku bat baino gehiago

Ostalaritza zerbitzu soil bat baino, zerbitzu integralago bat eskaintzen du Orexako Ostaturak; hazten jarraitu eta azpiegiturak aprobetxatu nahi dituzte

Orexara doanak galdu ezinezko geldialdia du egiteko Orexako Ostaturak. Baina ez bakarrik trago bat hartu edo mokadu bat jateko. Hori baino zerbitzu osatua goa baita bertan eskaintzen dena. Bertako produktuen aldeko apustutik hasi, ingurumena zaintzeko filosofiarekin lan egin, herri eragile izan eta denda, apartamentuak edota bilera gelak bezalako zerbitzu integrala da eskaintzen dena.

Orain gutxi karta berria osatu dute, bertako produktuaren garrantzia islatuz. Aldaketa handi bat baino, eguneraketa bat egin diote. Orexako produktuak lantzen aritu dira orain arte, jauzi bat eman dute orain, eta ingurutik jasotzen dituzten produktuak nondik datozen izendatzen aritu dira. Eneko Mairoz eta Pello Garmendia ostaturako kudeatzaileek

azaldu dutenez, «uste baino gertuagoko produktuak» erabiltzen ari dira sukaldean, haien sorpresarako: «200 kilometroko erradioaren barruko produktuak erabiltzen ditugu, gehienak 20 kilometroko erradioan daudenak». Hori baloreen jartzeko, kartan bertan zehaztu dute, idatziz, erabilitako produktua non goa eta zein herriakoa den.

Bertako produktuak plateran jan daitezke, baina ostaturak bertan kokatuta dagoen denda ere produktu berak eskuratu daitezke. Orexako gazta promozionatzeko leku bat behar zutela argi izan dute hasieratik, eta horrez gain, bertako produktuen erakusleio ere bada. «Bertan jaten duzuna gustatu bazaizu, bertan daukazu salgai; sukaldeko almatzena da denda». Kudeatzaileek kontatu dute, asko direla eroske-



Ostatura sartu eta txoko batean dute kokatuta bertako produktuak saltzen dituzten denda. I.S.A.

ta ohiturak aldatu dituzten herriarrak eta zenbait gauza, bereziki harategikoak eta esnekiak erabat erosten dituztela herriko dendan.

Eguneratzen, berritzen, datozen aldaketak txertatzen jarraitzea da asmoa ostaturak. Bide horretan, aplikazio bat sortzen ari dira, «bereziki gazteen ohiturei begira». Aplikazio horren bidez otorduetarako erreserbak zuzenean egin ahalko dira eta deskontuak aplikatuko dira. «Jendea fidelizatzea ere bada asmoa».

ENERGIA ERE BERTAN

Bertako produktu gisa hartzen dute bertan sortzen duten energia ere. 2019an jarri zituzten eguzki plakak ostaturako teilatuan eta gutxi gorabehera behar duten energiaren erdia ekoizten dute plaka horiek. Horrela, kontsumitzen duten energia guztia da berriztagarria, bertan sortzen ez dena ere Goiener bidez hartzen dutelako.

Aurrezpen horrek negozioa aurrera eramaten laguntzen dietela azaldu dute, baina sukaldeari bestelako erabilera bat emateko aukera ere ahalbidetzen die. Besteak beste, arkumea edota txerrikumea tenperatura ba-

xuan egin ahal dituzte, labea denbora luzez martxan izanik.

Aurrerago, Segoretzen jarriko dituzte eguzki panelak eta sortzen duten energiaren ehunekoa handitzea espero dute.

Ingurumenaren aldeko filosofiarekin egiten dute lan, eta sortzen duten hondakinari begira ere jartzen dira. Lehen, sortutako organikoa herrian bertan tratatzen zuten, baina «bolumen handiagatik» kanpora ateratzen dute orain. «Hondakinaren sortuntzan jaitsiera handia antze-man dugu, eta horrek aukera ematen digu zapiak edota mantelak paperezkoak, konpostagarriak erabili ahal izateko».

Horrez gain, garbiketa sistema berri bat ari dira martxan jartzen. Kimikoak diren produktuak kentzeko asmoz, ura ozonoarekin erabiliko dute. «Kimikoek adinako edo gehiagoko garbiketa egiten du, desinfektatzailea da».

KULTUR ERAGILEA

Ostiral Kulturalak egitasmoarekin aurrera jarraitzen dute. Hilabetero, kultur ekitaldiren bat antolatzen dute, ostaturako ganbaran, eta herri bizia izateko lanketa horretan, ezinbestekoa zaie herriarekiko lotura manten-

tzeko. Jarraikotasun bat emanda, ostatura kultur erreferentzia bat izatea lortzen ari direla diote kudeatzaileek: «Ostatura ez da bakarrik ostalaritzako espazio bat, beste zerbaite ere bada, herri eragilea da zentzu horretan».

Ostaturako azpiegiturak aprobetxatzen jarraitu nahi dute, eta dituzten espazioei ahalik eta zuku gehien atera. Horrela, nola ganbara, hala jangelan dagoen sala, bileretarako eta ekitaldi berezi-tarako bideratuta dituzte. Bilerak edo bestelakoak egin ahal izateko egokituta daude: hamar lagunentzako lekua dauka jangelan dagoen salak, telebista batekin eta bideokonferentziak egiteko sistema batekin. Pertsona kopuru horretatik gora, ganbaran dago lekua, proiektorearekin, soinuarekin, guztiz prestatuta. Publiko guztiarentzat dago zabalik.

Eta azpiegiturekin jarraituz, lotarako lekua ere eskaintzen dute. Segoretzen dituzte prestatuta apartamentuak, aurreko irailetik. Momentuz balorazio «positiboa» egin dute, eta udari begira ere aurreikuspenak «onak» dira. «Leku zoragarrian eta lasaian, bisita lekuetatik nahiko gertu dagoen zerbitzua da».



943 68 22 90
OSTATUA@OREXA.EUS
ERREBOTE PLAZA 1
OREXA

ostatura
orexa

